

## Arratia Futbol Taldeak dana prest

2019-2020 denporaldia martian emon zan amaitutzat. Sei hilabeteko etenaldiaren ostean, entrenamentuak eta eskolai ekiteko dana daukie prest Arratia Futbol Taldeko Zuzendaritza Batzordekoak. Nagusiak hasi dira entrenamentuetan, urri bigarrenean lehiatzen hasiko diran esperantzeagaz. Umeak barriz, ez dira hasiko momentuz. Pedro Jose Ormazabal Arratia Futbol Taldeko Zuzendaritza Batzordekoak, Gazte eta Kadete mailetan kategoriaz igotzeko helburua daukiela dino. **11. orrialdea**



## Bizkaiko Bertsolari Txapelketarako sailkapen fasea hastear

13. orrialdea

# Lemoan izango da II. Arratiako Kalenturak Ipuin Erotiko Lehiaketeta

Lemoako Udalagaz batera, ZERTU Kultur Elkar-teak martxan ipini dau II. Arratiako Kalenturak Ipuin Erotiko Lehiaketeta. Lanak bialtzeko epea zabalik dago zemendiaren 30era arte.

Aurreko edizionoko sari bardinak emongo dira aurten be. Irabazleak 600 euro jasoko ditu; bigarrenak, 400 euro eta Arratiako onenak be 250 euroko saria izango dau. Sari banaketeta erotismoa gaitzat daukan kultura ekitaldi bategaz batera egingo da Lemoako Kultur Etxean Gabonaldian. Zenbait urtetako lan irabazleak batu eta, liburu bat aterateko beste dagozanean, argitaratuko ditu ZERTUK.

Igaz Araba, Bizkaia, Gipuzkoa eta Nafarroatik bialdu-tako 17 narrazinok hartu eben parte lehiaketan. Ipuin irabazlea *Sokada baten hiru muturrak* izan zan, Ernesto Prat Urzainki idazle nafarrarena. **8. eta 9. orrialdeak**



# Kultura bonuak eta Begitu-lagunak

Bizkaiko Foru Aldundiak ateratako Bizkaia Aurrera Kultura Bonuak (BAKB) erabili daitezke Begitu-lagun egiteko. Holan, Begitu-lagun barriak 15 euro pagau eta BEGITURI 40 euro helduko jakoz. Baliabide ekonomikoak lortzeako, 2020an 50 Begitu-lagun egiteko kanpaina dauka BEGITUK.

Bizkaian kultura bultzatzeko asmoz, Foru Aldundiak 2021ko maiatzaren 31ra arte erabili daitezkezan bonuak atera ditu. Besteak beste, liburuak, musikea, filmak, dokumentalak, jokoak, bideo-jokoak eta museo, zinema, antzerkia, jantza eta kontzertuetarako sarrerak erosi daitezke bonuokaz. **12. orrialdea**



## ARRATIA

## Osasun neurriak barneratuta bueltau dira umeak eskolara

Sei hilabete eskolara joan barik emon ostean, aurrez aurreko eskolak hasi dira jasoten umeak, COVID-19a ez hedatzeko neurri eta protokolo barriakaz. Igorreko eskolan, horretarako materiala eskolako diruagaz erosi behar izan dabela eta irakasle laguntzaileen faltea salatu dabe. Eskolearen espazioa eta umeen kopuruak erabagiorrak izan dira, antolakuntza arazorik izateko ala ez.

Urri lehenengoaren 15erako deituta dagoan Hezkuntza grebara, irakasleen erdiak inguruk parte hartzeako asmoa daukie. **6. orrialdea**

## IGORRE

## Igorreko 51 establezimentutan erosteko bonuak

Igorreko Udalak eta AME merkatarien alkar-teak, ezohiko Bonodenda kanpaina ipini dabe martxan COVID-19a dala-eta, hartutako neurrien ondorioak arintzeko, merkatariak zein konsumitzaileak lagunduz. Herriko 51 establezimentutan gastau daitezke bonuak. **7. orrialdea**

**KIRRU**  
ILEAPAINDEGIA

ROSANA eta ROBER

SABINO ARANA 38  
IGORRE

TLF. 94 631 92 00



## ARRATIA

## Edadekoen burrukea su motelean

Jesus Mari Anzola Igorrekoak urteak daroaz edadekoak bizitza duina izateko aktibismoan. Bizi Igorre eta Jubiladuen alkarteko kidea da eta Nagusiak Bizkaiko plataforman Arratiako ordezkari. COVID-19ak gogor jo dau edadekoen kolektiboa eta mobimentuaren osasunean eragina izan dauala dino. Burrukeak segidu arren, ez dauka lehenagoko indarrak. **5. orrialdea**

**EKIN**  
30 urte beharrean

- LAN PUBLIKOAK
- INDUSKETAK
- GARRAIOAK
- UR SAREAK
- SANEAMENTS SAREAK
- BASERRI ETA BASOKO BIDEAK
- PABILOIAK
- URBANIZAZIOAK

94 631 72 57 Igorre (Bizkaia)  
[eraketak@construccioneseakin.com](mailto:eraketak@construccioneseakin.com)



## ZEURE BERBEA

### Kiñuz Gaztetxea defendidu

Sei urte dira Kiñuren atek zabalik dagozanetik. Arratiarontzat aisi eta militantziarako espazio garrantzitsua bihurtu da ordutik. Auzolana ardatz dogula, kultura zein kirola indartu doguz eta alkarte herrikoien topaleku be izan gara. Sei urtetan garatu dogun gizarte proiektua guztiontzat aberasgarria izan da eta beraz, aurrera jarraitzeko asmo osoa daukagu, kale-ratze mehatxuen gainetik. Solvia etxe agentziak kaleratu gura gaitu, herriarena dan etxe honegaz espekulau guran. Egoera honetan, asanbladako kideok herriaren interesen alde egitea ebatzi dogu, entidade pribaduen diru-gosearen aurka bada be.

Kiñu Gaztetxearen kontrako prozesua ez da banakako kasua. Urteotan Euskal Herriko gaztetxe askok sufridu daben prozesu bera da. Betiko lez, dirudunen interes

pribadu eta personalak, interes publiko eta sozialen aurka. Krisi ekonomiko batetik bestera salto eginda bizi garan gazteok argi daukagu zein dan gure aldea: eskubide publikoak defendidutea. Honen aurka hezi gura gaitue, azkenaldian bizi dogun okupazio mobimentuaren kontrako kanpaina mediatikoaren bidez. Kriminalizazio honen aurrean, gai bi argitu gura doguz. Haste-ko, okupazioa Kiñu moduko espazio herrikoiak eraikitzea dala. Beste batetik, okupazioa ez dala inoren etxebizitzan sartzea, etxebizitza-eskubidea guztiontzat bermatzea baino.

Kiñura bueltan, esan behar dogu asanblada inoz baino jendetsu eta indartsuagoa dala eta, gureagaz aurrera egiteko gogo osoa dogula. Baina hau ez da posible izango zuok barik, alkartasuna beharko dogu datozen mobilizazioetan. Eizu Kiñu!

KIÑU GAZTETXEA

Zure eretxia agertu gura badozu, Zeure Berbea atala zabalik daukazu. Ez da komenidu makinazko 15 lerro baino gehiago idazterik gutunotan. Izena, telefonoa, helbidea eta Nortasun Agiriaren zenbakia agertu beharko dira. Laburtu behar izan ezker, BEGITUK eskubidea dauka horretarako. Gutunak hona bidali: Zertu Kultur Elkarte. Herriko plaza, 24. 48142 Artea edo [begitu@topagunea.com](mailto:begitu@topagunea.com) helbidera.

## GEURE BERBATEGIAREN LEIHOTXUA

ANGEL LARREA ETA JUAN REKALDE

### Afruntua



Norbere gustuko ez dan kontu edo albiste txarra hartzean dogunean, afruntua emon edo jasoten dau personeak (afruntue edo afrontue, ahoskatuta). Batuan, atsekabe da. Esate baterako: "Beharrean bota naudenetik hona, etxeok afruntu handia sartuta daukie". Berba honek zabalago erabilitako beste esangura hau be badau: Haizea, euriagaz batera, gogor dabilen fenomeno meteorologikoa izaten da. Adibide bat: "Afruntu honek bentanak be ereinazo egiten dauz!".

## ERETXIA

### Ahokotasuna eskolan

Zalantza asko barik, euskeraren erabilera da irakaskuntzan gabilzanon kezka eta ardura handienetako bat. Gure ikastetxeetan, euskeraren ezagutza maila altua bada be, erabilera maila ez jako hurreratu be egiten. COVID-19ak eragin dauan egoera hau ez da bape be lagungarria izan honeri jagokonean. Are gehiago, oindino ikasgeletara itzuleran bagagoz be, oker egoteko arrisku handi barik esan daikegu kaltegarria izan dala. Euskeraren erabilereak behera egingo dau gure ikastetxeetan.

Normala be bada; batetik, ume askorentzat eskolea dalako euskeragaz hartu-emonetan egoteko daukien eremu bakarra, eta urri lehenengo guztietan egiaztatzen dogu, hilabete biz eskoleagaz eta euskeraren ikaskuntzeagaz kontakturik euki ez izanak ikasleen euskera mailan eragiten dauala eta, ondorioz, erabilera. Oin-goan sei hilabete izan dira.

Baina bestetik, koronabirusak eragin dauan konfinamentuan eta osteko hilabeteetan euskerak jendartean izan dauan presentzia be aitatu beharko geunke. Eskolara joateko aukera barik, ikus-entzunezko komunikabideak izanik etxe guztietan errege, danok dakigu zein dan hain garrantzizkoak diran hedabideetan euskerak daukan pisua. Itxialdiaren garaian gure ikasleak izan daben input horren zatirik handiena (osoa ez esateagaitik) erderaz izan da. Umeentzako edukari jagokonean, txikia da euskeraz dagoan kopurua, gainontzeko hizkuntzetan eskuratu daitekenaren parean. Eta gaitzerdi, ikus-entzunezkoak jagokienez indargunea hortxe daukalako euskerak, umeentzako edukietan. Nerabeentzako edukietan, hutsaren hurrengo da euskeraz daukagun eskaintza eta helduentzako edukiez zer esan...

Gainera, sasoi gatx honetan, umeen begietara "helduen gau-



### AMAIA TREJO ALDEKOA

Irakaslea

za inportanteak" diranak erderaz izan dira. Telebista edo irratia biztuta umeai isilik egoteko eskatu deutsegun kasu horreetan, ez da euskerarik entzun. Albiste garrantzitsuak, agintarien agerraldiak, prensurrekoak, oharrak... danak erderaz izan dira. Horrek mezu argi bat transmitiduten deutse gure gaztetxoai: gauza garrantzitsuak, erderaz.

Kezkagarria da, izan be, gure hizkuntzaren biziraupena, etorkizunean izango dituan hitzun kopuruaren menpe dagoalako, guztiz. Sarri entzun izan dogu hizkuntzaren biziraupena bermatuta dagoala, ezagutza be bermatuta dagoalako. Baina arrisku handia dago euskera bilakatzekoa, jende ugari ezetu, baina oso gitxi erabiliko dauan hizkuntzea. Eta erabilten ez dan hizkuntza bat bizirik dagoala esatea, bere horretan kontraesana dala pentsatu leiteke. Latina bizirik dagoala esatearen parekoa litzateke.

Izan be, hizkuntza baten funtsa, personak alkarregaz komuniketako tresna izatea da. Horretarako ez badau balio, zertarako gura dogu? Erabilia izateko, hizkuntzak erabilgarria izan behar dau. Praktiko. Egoera eta testuinguru desbardinetan, unean uneko komunikazio beharrai aurre egiten lagunduko deuskuna. Ikasleak ulertzen eta ezagutzen dabela bermatzea ez da nahikoa, komunikazio egoera desbardinetan adierazkorrak izateko eta eroso sentiduteko tresna eta baliabide desbardinaren jaube izan daitezkan lortu behar dogu. Zentzu horretan, ahokotasuna lantzea ezinbestekoa da.

Oker gabilz ahokotasuna zehar-lerro edo bigarren mailako kontu lez tratetan dogunean. Oi-

narrizko curriculumean aitatzen da ahokotasunaren idatziz komuniketako gaitasuna. Buruz ikasitako testu bat edo gitxi gorabeherako kohesinoa daukan berba zerrenda bat ahokotasunaren ematea ez da gaitasun horren jaube izatearen erakusgarri. Ahokotasunaren gaitasuna izatea da buruan dabilazkun ideak adierazteko eta ulertu arazoteko gaitasuna izatea: adierazkorra izatea.

Sasoi baten eukan garrantzia galdu dau ahokotasunak gaur egun. Kontuan izan behar dogu, oin ez asko arte idazten eta irakurten ez ekian jente ugari egoala, baina ha-ta guzti be, belaunaldiz belaunaldiko transmisioa ez da eten. Ipuinak, istorioak, kantuek, mitoak... ahokotasunaren transmisioa izan dira eta gaur egun arte heldu jakuz. Azken urteotan, gainera, berehalako komunikazio globalaren eztanda moduko hau gertatu jaku eta mota guztietako pantaila eta aparatu elektronikoen aurrean isilik geratu garala esan daiteke.

Zorionez, gurean badaukagu ahokotasuna modu erraz baten landuteko aukerea. Gure kulturaren, ahokotasunaren horren adierazgarri bikain bat bizi-bizirik daukagu oindino: bertsolaritza. Eta suerte handia daukagu, ikastetxez ikastetxe bertsolaritza landuten dabilen irakasle talde trebatua dabilalako.

Baina ez da, beinke, ahokotasuna landuteko modu bakarra. Bertsolaritza, atzen finean, hizkuntzeagaz jolastea baino ez da. Berba barriak deskubridutea, esateko modu desbardinak esperimentetea... Mila modutan landu daikegu hori gure ikasgeletan; borondatea izan ezker, imajinazio apur batez, hainbeste ariketa eta jolas asmatu daikeguz berbakaz jolasteko.

Ahokotasuna landutea, pentsamentua landutea da. Hizkuntzeagaz adierazkorra izatea lortzean dauanak, norbere buruagazko ziurtasun handiagoa dauka eta ondorioz autoestimuan be eragiten dau. Hori guztiori, gainera euskeraz egiten badogu, ez dogu gitxi egingo.

· Tailerra, bizikleta eta osagarrien salmenta · Azterketa biomekanikoak

688753324 Sabino Arana 13, Igorre arrabikeigorre@gmail.com arrabike.es

## LUMATUTEN



SORAYA LIZUNDIA

## Badakit ez dakit

**E**uskaldunak gurera bizite-  
ra etorten diranakaz abe-  
gitsuak garala uste dogu  
baina bada begi txarrez ikusten  
dogun bizikide barria (COVID-  
19a hain zuzen be) eta ez erra-  
zoi barik ze, gure lepotik bizi da  
eta gainera gelditzeko asmoa  
daukela dirudi. Bizirik irauteko  
gu behar gaitu, gure gorputzean  
sartzean da eta makal topau  
ezkero bizitza galtzerainoko bi-  
dean jartzen gaitu. Guk holako  
bizikiderik ez dogu gura ze era-  
gin fisikoaz gainera, ongizatean  
be eragina dauka. Honeri aurre  
egiteko zientzialarien aholkue-  
tan oinarritutako neurriak hartu  
doguz eta ondorioz gure arteko  
hartu-emonak aldatu dira baita  
egoera ekonomikoa be.

Konfinamentu garaian sor-  
tutako alkertasun sarea eta  
sentimentuak mundu barri bat  
sortzeako kapaz izango ginan  
esperantzea biztu eban gudan  
eta oin normaltasun barri honetan  
ezer gitxi aldatuko dogula  
ikusten garbiz.

"Mundu zaharra hiltzen dago  
eta barriari jaiotea kostetan jako  
eta argi-ilun honetan munstro  
guztiak jaiotzen dira". Gramscik  
espetxeetako eskutitzetan ida-  
tzi legez, azaldutako hau gaur  
egungo egoerara be aplikau lei-  
tekela esango neuke. Faxismoa  
da munstroetako bat, beti hor  
egon da bai, baina gorakadea  
ikusten gabiz. Bizitza duina al-  
darrikatzeko langileak erabilitako  
leloak erabilten dabe Justizia eta  
Askatasuna alegia, nortzuek eta  
eurak! Eta pandemiari buruzko  
siniskerietan oinarritutako ar-  
gumentu guzurtiak erabilten  
dabez, ikerketa zientifikoak  
apurka-apurka lortzean dituen  
emaitzak gitxiesten. Norberaren  
interesakaitik bakarrik mobidu  
diranak eta giza eskubide eta  
askatasun kolektiboaren aldeko  
burrukeari bizkarra emonda bizi  
izan diranak, erosi egin ditue  
idea horreek.

Zientzialarien lana etenbakoa  
da, emaitzen zain gagoz irriki-  
tan ze oindino asko ikasi behar  
dogu eta honen harira Jone  
Uriak Berrian idatzitako "Ziur-  
gabetasuna" izeneko eretxi ar-  
tikulua gomendatzen deusuet,  
bitartean bertotik ateratako  
zati eder hau hausnarketarako  
ekartzen dot: "gehiago daki ez  
dakiala dakianak, dakiala uste  
eta ez dakianak baino".

## ZERTZEAN



RAFA UGALDE

## Ilunpetako lilia

Asteokaz egoera latzak izan dodaz inguruan. Oin dala  
aste batzuk euki neban bazkari baten ergel batek  
Francoren altxamentua justifiketan eban, munduko  
normaltasun guztiagaz. Gertaera historiko gorrien  
negazionismoagaz neonaziak hasi ziran Alemanian,  
eta izugarria bada be, gurera be heldu da joera hori.  
Frankistak edo Francoren ondorengo zuzenak papartuta  
dabilz, eta gazte asko eta asko ez dira konturatuten, ez  
dira jabetuten hori ikaragarria dala. Beste alde batetik,  
euskal preso baten heriotzea be gertatu da ointsu; hori  
be ikaragarria da, eta hori be Francoren ondorengo  
zuzenak erabilten dabezan politika bortitzakaitik,  
barruan daukien piztaren amorrugaitik.

Holakoak ikusita, uste dot ezinbestekoa dala jentearen  
kontzientziak astindutea, eta gogorazotea Euskal He-  
rriak zenbat sufridu dauan faxismoaren amorruean  
pean. Gogora etori jat Lemoako Udalak Memoria Histo-  
rikoa dala-eta argitaratu eban diskoa. Horretarako abesti  
baten letra asmatzeko eskatu eusten. Letra bat presta-  
tu eta Jagoba Ormaetxeak ahotsa ipini eutsan, modu  
zoragarrian ipini be. Pentsau dot egokia izan leitekela  
abesti horren letra hona ekarte, gogoak astinduteko, eta  
sekula ez ahaztuteko piztia inguruan daukagula. Hona  
Lemoara bialdu nebana:

1936ko Gerra Zibilean Zornotzako Karmelo ikas-  
tetxea andrazkoentzako espetxea izan zan, Euskal  
Herriatik kanpokoak ei ziran. Umeak be jaiotzen

ziran han, batek jakin andrazkoak haurdun ekar-  
ten ebezalako ala bertan geratu ziralako haurdun,  
bortzaz. Ume hareetako asko hil egiten ziran es-  
petxe haren sasoi gorrian; horren lekuko geure  
aita izan zan, eskolako mutikotxoa zala berari eta  
beste ikaskide bateri egokituten jakien-eta zerral-  
doak ortusantura eroatea; bake epailea aurretik  
eta aguazila atzetik eukiezala.

**G**azte nintzelarik ostu zidaten eguzkia  
gazte nintzelarik ekarri ninduten egutera-  
tik laiotzera  
argitasunetik infernuko barrenbideetara.

Gazte nintzelarik, gorrotoaren kumeek bahiturik  
bortzaz ninduten ernaldur  
kumeetako zeinek, nork jakin.  
Espetxeok ilunpetan loratu zinen nire barrenan  
tristuraren erresuman zorionez etorria  
itxaropenaren lorea  
ene lilia  
ziegaren iluntasunean berpiztu zenidan eguzkia.  
Gorrototik ernea maitasuna  
amorrutik zorionaren miraria  
hilda nengoela  
zeu izan zinen nire uztargia.

Sustraietarako behar zenuen ongarrria  
falta izan duzu,  
nire bularraren emaria.  
Infernuko barrenbideetan aurkitu zaitut  
bertako leiak iharturik  
batu zaitut izara ugerretan  
hartu magalean,  
kulunkatu besoen artean  
liliaren koloreak iziotu guran.  
Amatatu egin zara betiko infernuak irentsia  
gorrotoak iraungia,  
gazte nintzelarik ostu zidaten eguzkia  
ostu zidaten bizi-argia.

Letrak asko irabazten dau Jagoba Ormaetxeak  
prestatutako abestia entzunda. Izan bedi preso  
guztiai, bereziki andrazkoai, egindako gorazarre.

## BEGI TXINDORRA

**M**undu gehiago badagoz planeta honetan eta itsasoan mur-  
gildutakoan hortxe daukagu bat. Eta ikaragarri ederra da!  
Horixe ipini deusku begibistan Libe Ormazabalek Mallorcan  
ateratako argazki honegaz. Eskerrik asko Libe, hain momentu ederrak  
konpartidutearren.

Aurtengo Oporretako Argazki Lehiaketarako argazkiak bialtzeko ha-  
mar egun baino ez dira geratzen, hilaren 25ean amaitzen da epea  
eta. Libek moduan parte hartu gura badozu bialdu lehenbailehen  
zure argazkiak, hiru gehienez, [begitu@topagunea.com](mailto:begitu@topagunea.com) helbidera. Ira-  
bazleak Euskal Herriko landetxe baten astegoiena izango dau sarizat.  
Ez galdu aukerea!



**Gorosti** Lorategien Diseinu eta Gauzatzea  
Ureztaketa instalazioa  
Mantenua eta Inausketa  
LORAZAINTZA  
Bidosola Industrialdea E2 Pab. 48.142 Artea  
Tel: 94 673 96 34 Faxa: 94 673 96 88  
gorosti@gorostisc.com

**agoa** Ortodontzia  
Implanteak  
Estetika  
hagin klinika  
Marina Urigoitia Aldekoa  
Ondarraga  
Bidebarri 1. behea  
48140 Igome-Bizkaia  
T. 94 631 50 39  
Kalejatu Zerbate 101  
R.P.S. 21/06

**J.A. IZQUIERDO**  
PINTURA LANAK  
MOKETA · SINTASOLA · PAPERERA  
Elexkolda, 33 D - 1º · 48140 IGORRE (Bizkaia)  
Tel. 94 631 64 82 · 506 664 018

**Troka**  
Lanbideari Aurre!!

ARRATIA

LEMOA

## Jesus Mari Anzola: "Dana dago parauta edo erdi parauta COVID-19ari bildurragaitik"

Jesus Mari Anzola Igorrekoak urteak daroaz edadekoak bizitza duina izateko aktibismoan. Bizi Igorre eta Jubiladuen alkarteko kidea da eta Nagusiak Bizkaiko plataforman Arratiako ordezkari. COVID-19ak gogor jo dau edadekoen kolektiboa eta mobimentuaren osasunean ze eragin izan dauan jakin gura izan dau BEGITUK.

### Erredakzioa

COVID-19aren aurretik, jubiladu eta pensionisten mobimentuaren Bilboko manifestazio jentetsuak albistegiak zabalduten ebezan eta pensino duinen aldarrikapena agenda politikoan sartzea lortu eban mobimentuak. Indarra eukan. Oin dana "parauta edo erdi parauta" dagoala dino Anzolak. Izan be, edadekoak arrisku taldea izanda, gaixotasunak berak, bildurragaitik eta gaixotasuna ez hedatzeko hartutako neurriak, su motelean daukie burrukea. Ha-ta guzti be, baikorra da Anzola eta uste dau mobimentuak berreskuratu daua lehengo indarra.

### Bizi Igorre bizirik dago?

Printzipioz jarraituten dogu lanean. Guk diagnostikoa egin genduan eta diagnostiko ostean, lehentasunak definitudun ebazan Ekintza Plana be egin zan. Plangintza hau emon jakon Udalari. Baina, beinke! hori aurrera ateratea udal aurrekontuak baldintzatzen dabe. Eta beste lehentasun batzuk egon daitezke. Udalgaz egin behar dogu batzarra.

Udalagaz egin genduan azkenengo batzarrean, ekimen bat adostu genduan beste alkarre batzuk alkarlana egiteko. Udalak, kontaktuan ipini da eskolako guraso alkarreagaz, apur bat zer egin ahal dan eta zertan eta zelan ikusteko. Hori martxan dago, edo erdi martxan. Ikusiko dogu ea zer urtetan dan.

Maraka enpresek aurrekontua be aurkeztu eban eta Udalak baietza emon eutsan. Segiduteko gogoagaz gagoz. Beste alkarreagazko hartu-emonetako proiektuak be aparteko aurrekontua dauka eta horregaz be... aurrera segiduteko gogoagaz.

### Bizkaiko Nagusiak plataforman Arratiako ordezkari zara. Zein egoeratan dago?

Bizkaiko Nagusiak-en Igorretik, Javi Zuluaga eta neu gagoz. Topaketa bat egiteko gogoaz daukagu. Asmoa urte amaieran egitea da, zemen-dian... Baina, ez dakit, jentek ez dauka topaketetara joateko bape be gogorik, bildurragaitik dago eta erdi parauta dago dana. Topaketa bat egiteko jentea batu behar da

eta jentea batuteko be arazo handiak dagoz. Ez dakigu zer egin.

Nagusiak plataformak informazioa eskatu dau herri guztietan alkarreagaz zelan dagozan jakiteko: ea zabalik dagozan; ule-apaindegia euki ezker, ea martxan dagoan; podologoak beharrean segiduten daben... Ze Bilbon be zarratuta dagoz alkarreko lokalak, Udalak agindu eban lokalak zarratu egin behar zirala eta zarratuta jarraituten dabe. Han be, batzarra ez dakit noztik ez doguzan egin. Bildurragaitik dago jentea. Zuzendaritza Batzordean 20-25 ordezkari batzean gara eta oin ezin danez bilera hori egin, hori be parauta dago.

### Dana dala, hasi dira barriro pensinoen aldeko kontzentrazioak.

Pensinoena ez da izango erraza aurrera ateratea. Ze, beharbada, beste gauza batzuei emongo deutseez dirulaguntzak baita Europatik datozenak be. Dirua beste arlo batzuetan emon behar da. Izan be, jente asko geratu da lan barik eta beharizan handiak egongo dira. Baita gastu handiak be: COVID-19ak dakarzan gastuak osasun arloan, barbarako. Hor diru asko joango da. Hori dala-eta, luze joko dau pensinoak hobetuteak.

Kontzentrazioak egiten segiduten dabe, baina beharbada, lehen, indarra handiagoa zan. Lehen jente gehiago joaten zan kontzentrazioetara. Nik uste dot hori denporan luzatu egingo dala, beharizanak be beste batzuk izango dirala.

### Igorreko Jubiladuen alkarreagaitik



### hainbat ekintza prestatu izan ditu aurreko ikasturteetan. 2020-2021erako be prestatu ditu?

Hori be guztiz parauta dago. Taberna daukien jubiladu alkarreagaitik, Igorren moduan, erdi martxan dagoz tabernok. Lehen baino jente gitxiago egoten da tabernetan be.

Mendiko martxak eta horreek danak parauta dagoz. Diman zeozer egiten dabe. Lehen, Dimakoak mendi martxea egiten ebenean Igorretik hainbat joaten ginan Dimara, 12 edo 15 bat lagun, oin, jente gitxi joaten da, dozena erdi bat edo.

### Honek guztiak oin arteko filsofiaren kontra doala dirudi, erakundeek hainbeste bultzatu eben zahartze aktiboaren kontra, beste gauza batzuen artean. Uste dozu txertoa dagoanean lehengoratu dala egoerea?

COVID-19aren arrisku taldean dagoan kolektibo bat gara eta ez dakit txertoak ekarriko ete dauan urtenbidea. Ze askok dinoe lehenengotan behintzat ez doazela hartzean, ez dakigulako garantiaz aterako daben. Bildurra dago.

Baina nik ez daukat dudarik mobimentua barriro indartuko dala. Akaso apur bat kutsatzeak gitxitu arte etxon behar da, ez dakit txertoak lagunduko dauan ala ez, ez dakit noz izango dan 2021ean edo 2022an... Baina hau gaintu ezker, atzera be indarra hartuko dau mobimentuak. Arealan diferentia izango da, ez dakit aldaketa zein izango dan baina mobimentuak jarraituko dau.

## Neurri barriakaz zabaldu dabez kiroldegia eta beste udal zerbitzu batzuk

### Erredakzioa

Sei hilabete bete diranean, COVID-19a dala-eta, udal zerbitzuak zarratu zirala, Lemoako Udalak gimnasioa eta padel pistak zabaldu ditu egoera barrira egokitutako osasun segurtasun neurriakaz.

Hilaren 14an zabaldu ziran instalazioak. Gimnasioa gehienez ordubete hamar personak erabili leikie eta padel pistak ordu biz lau personak. Gimnasio erabiltzaileak euren toallea eroan eta amaitutakoan erabilitako materiala desinfektatu behar dabe.

Txandea Udalaren webgunean hartu eta baieztapena emailaz jasoko dau erabiltzaileak. Ordainketa, kiroldegiko harreraren banku

txartelagaz egin behar da. Aldagelak eta dutxak zarratuta dagoz.

Edadekoentzat garrantzia handia hartzean dau ariketa fisikoak autonomia eta ondoizatea luzatuteko eta horren jakitun, Udalak Mugiment programako ibilaldi gidatuak martxan ipini ditu barriro. Parte hartu gura dabenak eguaztenetan daukie hitzordua, 09:00etan, Gudarien Parkean.

### Ludotekea eta udal liburutegia leku aldatzen

Ludotekea eta liburutegia zabaldu ahal izateko lanean dagoz langileak. Izan be, Kotxepin Kultur Etxean zabalduko ditue instalazio barriak eta lekua aldatzeko beharretan dabil.



AREATZA

## Bide publikoen inbentarioa egiten dabiz

### Erredakzioa

Udaletxean eskari asko jasoten ditue bideak norenak diran galdetuz eta horreei erantzuteko Areatzako Udalak bideen inbentarioa egitea ebatzi dau. Bertan, bideen izakerea finkatu eta bide bakotxari jagokon estatus legala izentauko jako, liskarrak ebitau edo modu egokian konpontzeko.

Inbentarioa egiteko, lurraldearen analisi kartografikoa eta landa lana buztartzen dira. Antxinako kartografia eta katastroa, idazlanak eta bildutako testigantzakaz egiten da analisisa, bide bat publiko edo pribadua dan ondorioztatzeko. Ikerketa horren datuakaz, erakusketa publikoa egingo da, auzokideak alegazioak aurkeztuteko. Gero behin-betiko proiektu

terako da, Udalbatzak onartu behar da.

Sendo ingeniariak hartu dau bere gain inbentarioa egiteko eginkizuna. Horretarako "bide publikoak artxiboetan bilatu, juridikoki zelan dagozan ikusi eta mapa historiko diferentietan ikusten dabez bideak" azaldu deutso BEGITURI Asier Garcia Areatzako alkateak.

### Sendo ingeniaritza

Sendo ingeniariak 1997an osatu eban lehenengo Bide Publikoen Inbentarioa eta ordutik Bizkaia, Gipuzkoa eta Arabako dozenaka udalerritan egin dabez inbentarioak. Geografia Informatiko Sistemen (G.I.S.) eta landa garapenera aplikaturiko ingeniariak erabilten dabe.

ARRATIA, UBIDE, ZEBERIO

## Osasun neurriai egokitzen hasi dabe ikasturtea eskualdeko eskolak

Erredakzioa

Eskolara buelta ez da bardina izan eskualdeko eskola guztietan. Orokorrean, batez be espazio nahikoa daukien eskolarik txikienetan, osasun neurri barrietara egokitzen ondo moldatu dirala dinoe eskoletako zuzendariak, Areatzan, Zeberion eta Lemoan, batez be. Igorre eta Zeanurikoan, antolakuntza aldetik arazoak izan ditue. Osasun neurrien materialaren eskasiaz kejetan dira eta maskarak eta gel hidroalkoholikoak eskolako diruagaz erosi behar izan dabela salatu dabe Igorren.

Kezkatuta egozan irakasleak umeak zelan bueltauko ziran, sei hilabete eskolara joan barik egon ostean, baina, psikologikoki, pentsetan ebena baino hobeto

etorri dirala dinoe Zeanuriko eskolan, "neurri guztiak barnerruta" heldu dirala adierazo dabe Lemoan eta "pozik" bueltau dirala dinoe Zeberion. Irakasleak be "eskolak bete ume ikustean, zorientsu" dagozala, dinoe. Ha-ta guzti be, egoera honek eta hartutako neurriak pedagogian eta maila akademikoan izan daikien eraginak kezkatzen ditu hainbat irakasle baina "umeen heziketarako eskubidean" eragin txikiena izan daiten ahaleginduko dirala dinoe. Arteako eskolan, buelta arraroa izan dala dinoe, "beste modu bat eta beste egoera bat", hain zuzen be.

Osasun neurriak bermatzeko eskolako diruak erabili behar izan ditue Igorren, eta ez dala irakasle laguntzailerik hartu salatuten dabe. Kontrara, lau hezitzaile eta

jardunaldi erdiko beste baten laguntza eukien aurreko ikasturtean eta jardunaldi erdiko ez daukie oin.

Hori dala-eta, irakasleen erdiak urri lehenengoaren 15erako deitutako grebara joteko asmoa eukien, nahiz eta batzuen ustez, "egun batekoak ez dau ezertarako balio izango". Hori holan, batzuek greba mugabakoa defendiduten eben eta beste batzuek ordea, grebarik ez egitea. "Gobernuari haserre adierazoteko" modu bat dalako egingo dabe beste batzuek.

**Lemoatx Trail eta Zeanuriko Mendi Duetloia bertan behe-  
ra**

COVID-19 kasuak ugartu egin dira urri lehenengoaren lehenengo hamabostaldian eta oin-

go sasoiaren egitea espero zan hainbat ekitaldi bertan behera geratu dira. Mobikortasun Europako Asteko Arratiako Ibaier-tzetatik martxea, Lemoatx Trail edo Zeanuriko duatloia, tartean. Fetxa honeetan be, izaten zan Dimetal jaialdia, baina antolatzailak aurretik jakinarazo ebe-  
nez, aurtengorako prest egoan kartela datorren urterako lotu dabe.

Urri lehenengoaren 1ean emon eban jakitera Ganzabal Mendi Taldeak, aurtengo Lemoatx Trail, zemendiaren 22an jokatze-  
koa zana, bertan behera geratu dala. Komunikadu baten, "buruari milaka buelta emon eta aukera desbardinak aztertu ondoren", Lemoatx traileko antolatzailak, osasun egoera kontuan izanda, Lemoatx Trail-en V. edizioa datorren urtera atzeratzea ebatzi dabela emon eben jakitera.

Zeanuriko Mendi Duetloari jagokonean be, ebatzi bera hartu eben antolatzailak.

ZEBERIO

## Garbigune mobikorra hilaren 21etik 25era

Erredakzioa

Urri lehenengoaren 21etik 25era, udaletxe aurrean egongo da Bizkaiko Garbigune Sareko Garbikerreko kamioia, Zeberioko Udalaren ekimenez.

Bertan, beste edukiontzietan bota ezin daitekezan hondakinak bota daitekez. Hau da, mota askotako hondakinak: eteko tresna txikiak, sukaldeko tresnak, telefono mobilak, kableak, pinturak eta disolbatzaileak, inpresorearen tonerra eta tintazko kartutxoak, kafe makinaren kapsulak, pilak, CDak, DVDak, kaseteak eta erradiografiak, besteak beste.

ARTEA

## Herriko produktuen azokea hilaren 19an

Erredakzioa

Jaiari lotuta egoten da urtero MerkArtea, baserriko produktuen azokea. Tradizino handiko merkadua da, baserri giroa ekarten dauana Arteara. Aurtun, COVID-19a dala eta, ezin izan da egin, baina Gorbeialderen laguntzeagaz, Arteak baserriarrak euren produktuak zuzenean saltzeako aukera hau ez galtzea gura izan dau. Horregaitik, formatu txikiagoko azokea egingo dabe hilaren 19an, "Herri bat, merkatu bat" lelopean.

Frontoian izango da 10:00etatik 15:00etara eta hamar bat salmahai egongo dira. Beste batzuen artean, baserriko txorizoak, barazkiak, ardi eta ahuntz gaztaia, ezta, ogia eta artisautzako produktuak erosi ahal izango dira bertan.

Aforo mugatua dago.



ARRATIA, UBIDE, ZEBERIO

## Hogeita sei tontorretara eroango dau Izan Bidea ekimenak presoak etxeratzeko aldarrikapena

Erredakzioa

Izan Bidea, preso eta igeslarien etxeratzearen aldeko ibiltarien sarea da. Euskal Herriak dituan biztanle adina kilometro, hau da 3.127.326 km egiteko erronkan oinarrituta, urri bigarrenaren 3an, Euskal Herriko 650 mendi tontorretara igoera antolatu dabe. Euretako 26 Arratia, Ubide eta Zeberion dagoz eta Izan Bideaneko kamisetan soinean, mendiotara igoteko deialdia egin dau Sarek. Izena emotea zabalik dago <http://650tontor.sare.eus> helbidean eta antolatzailak lehenbailehen egiteko eskatu dabe.

Edozein modutan igon daiteke: oinez, galapan, bizikletan... baina beti be motorrik erabili barik. Egindako kilometroak kuantifiketako Izan Bidean izeneko aplikazio bat dago, bideari ekin aurretik deskargatu egin behar dana. Tontorrean, argazkiak atera eta sare sozialetan eskegiteko eskatzen dabe antolatzailak.

Arratiako mendiak

Dinamikan parte hartzeako urri lehenengoan Arratian igon daitezkean mendiak hurrengoak dira: Aldamin (Zeanuri), Altungana (Zeanuri), Apario (Igorre/Lemoa), Arralde (Ubide), Arrugaetako atxa (Zeberio), Artanda (Zeberio), Ar-



taungan (Dima), Bargondiko atxa (Dima), Eneabe (Ubide), Errialtabaso (Dima), Gantzorrotz (Dima/Zornotza), Garaio (Dima), Gatzarrieta (Zeanuri), Gorbeia (Zeanuri), Ilunbe (Areatza), Lekanda (Zeanuri), Lemoatxa/Gantzabal

(Lemoa), Leungana (Dima/Mañaria), Mandoia (Bedia/Zeberio), Murga (Artea), Santiagozar (Bedia/Lemoa), Untzueta (Zeberio), Upo (Areatza), Urrekoatxa (Dima), Urtemondo (Dima) eta Zibururi (Zeanuri).

AREATZA

## Areatzak gizon eta andren arteko bardintasan diagnostikoa egingo dau

Erredakzioa

Bardintasan plan barria prestatzeko, gizon eta andren arteko bardintasanaren alde egindako lanaren diagnostikoa egingo dau Areatzak. Proiektuak 9.650 euroko aurrekontua dauka, Emakundek horren %75a ordainduko dau eta Udalak beste %25a.

Proiektuak hainbat atal ditu, aurretik landutako dokumentuak eta planak aztertea eta horreetatik datu kuantitatiboak jasotea; aurreko legegintzaldietako bardintasan zinegotziakaz alkarrizketak egitea, edo-eta herritarrak parte hartzeako espazioak sortzea, esate baterako.

Errotik kooperatibeak garatuko dau diagnostikoa eta Arratiako Udalen Mankomunitateko Bardintasan Teknikariak gainbegiratu dau. Lanean hasi dirala azaldu deutso BEGITURI Maitane Diez zinegotziak. COVID-19a dala-eta, proiektuan aldaketa batzuk egin behar izan dira. "Ez dira aldaketa handiak izan, ez deutsie diagnostikari berari eragiten. Herritarrak egin beharreko saioretako aforoa zaintzea eta holango neurriak jasotea izan da".

## Ahazten ez diranak ez dira joaten

Abuztuaren 29an hil zan Ixaso Bernaola Arriortua, Arratia Institutuko irakasle eta zuzendaria, 56 urte ebazala. Institutuko lankideak bere bizipoza eta beragaz bizi izandako momentuak ez dituela ahaztuko dinoe.

### Hektor Rodriguez. Irakaslea

Eta oin zelan ospatuko dogu atzeratuta geunkan bazkaria, Ixaso? Zu barik ez da bardin izango mahai inguruan alkartutea, zure alaitasunak hain bereziak egiten ebazan eta holango momentuak! Zure faltea lar igarriko dogu, gainera bazkari horreek egitea zure idea izan zan, zuri esker hasi ginan batzean.

Holangoxea zan eta gure Ixaso. Batez be alaia, beti eukan irribarre bat arpegian. Momentu txarretan be irribarretsu, eta gainera ondokoa hobeto sentiduarazoten saiatuko zan. Eta beti zeozer egiteko eta antolatuteko asmoagaz, bai beharrean bai beharretik kanpo. Beti egoan edozertarako prest, eta beti eukan idea onen bat momentu baxotxa berezi bihurtuteko. Holan hasi ginan bazkari horreek egiten; institutuko zuzendaritza aldatutea tokau zanean karguetatik urten ginanok sartu ziranakaz batera kontaktua mantentzeko era egokiena zein izango zan ba, bazkalduteko alkartutea baino? Eta emon arren bazkari horreek behar kontuak argituteko erabiliko genduzala, guztiz kontrakoa egitea lortuten eban, beharra ahaztutea hain zuzen be.

Holangoxea zan eta gure Ixaso. Beti prest zeozer berezi eta desbardina egiteko, beti prest bizitzaz gozatuteko. Azken egun honeetan berataz berba egiterakoan gehien aitatu izan doguna bizitza disfrutau egin dauala izan da, edozein momentu bizitzaz gozatuteko aprobetxau dauala, eta ondokoak bizitzaz gozau arazoteko ahalegina egin izan dauala. Eta beti pozik. Berbaren bategaz definidu beharko bagendu, bizipoza da berba hori zalantza barik. Bizipoz hori inoz ez dogula ahaztuko seguru nago.

Eta bizipoz hori beharrean be erakusten eban, holangoxea zan eta gure Ixaso. Borja Estankonak sare sozialetan esan izan dau sarri joaten zala bera beharrera kopetilun, eta egun horreetan Ixasok baeukala "txispa berezi hori, gogo pizgarria, irribarrea ateratekoa, hain ona bizitza eta lana edertzekoa". Ederto baten azaldu eban Borjak beste askok be sentitzen genduan; goiza aldrebestuta hasi arren Ixasogaz egonda gero beste animo bategaz ekiten geuntsan egunari.

Egunero erakusten euskun horixe bera. Beti alai ikusten genduan pasilloetatik edo zuzendaritzan. Beti alai, eta beti beharrerako prest. Hizkuntza-proiektua aurrera atera behar izan zanean, arazo barik hartu eban berak ardurea. Zuzendari postua beteteko bere turno zala be berak esan eban, besteok kontrakoa esaten genduan. Erronka barriak gustau egiten jakozan. Eta beti zeozer barria martxan ipini guran ibiltzen zan hara eta ona, zelan ez ikasleen onerako pentsatuz. Halan joan izan dira adibidez Arratiako ikasleak Ulmera (Alemania). Han be bere faltea igarriko dabela jakinarazo deusku Juliak.

Ikasleak be faltan igarriko dabe bere prestutasuna. Ikasleak gozatuz ikastea zan bere helburua, bizipoza gela barruan be zabaltzen eban, beti ikasleen onena ateraten saiatuta.

Ba bai Ixaso, zuk egingo eta gurako zeunken moduan, mahai baten inguruan bazkaltzeko batzean jarraituko dogu, eta zuri buruz egingo dogu berba. Lerro honeek idazterakoan lez negar-antuluak eskapauko jakuz, seguru, baia bizipozak irabaziko dau barriro be, zu egoten zinanean lez. Bizitza irribarre bategaz hartzean jarraituko dogu, zutaz gogoratuz, ez zaitugulako inoz ahaztuko. Illartek idatzi eban moduan, ahazten ez diranak ez diralako inoz joaten. Eta ez dogulako gura zu inoz guztiz joaterik.

IGORRE

## Euskerea eta kulturea kalera aterako ditu Igorrek Inbiu Egunean

### Erredakzioa

Aurtengo Inbiu eguna ez da aurrekoak modukoa izango. Jente pilaketarik ez gertatzeko, ez da kalejiririk, bazkaririk, ezta erromeriarik be egingo. Ha-ta guzti be, Euskera Zerbitzuak, Igorreko Euskera Eguna, Inbiu Eguna, ospatu gura dau, eta euskerea eta kulturea kalera aterateko aldarria egin. Urri lehenengoaren 19an izango da. Hiru jarduerak osotuten dabe egitaraua: umeentzako bik eta nagusientzako batek, hain zuzen be.

Aurreko urteetan baino modu apalagoan eta "babes, segurtasun eta higiene neurri guztiak jarraituta", euskereak bizirauteko, euskerea erabili behar dala eta kulturea dala horretarako bide egokia gogoratuko dabe igorretarrak Inbiu egunean. Goizeko 11:00etan hasiko dira ekitaldiak Kultur Etxeko plazan, umeentzako irakurketa saio bategaz eta, gero, 12:30ean, helduentzako



Zuztertxuren irudia Kultur Etxeko horman.

olerki saioa egongo da. Arrastiko 17:00etan, udaletxe ondoko frontoian eguraldi ona egin ezkerro eta kiroldegikoan txarra egiten

badau, *Urpekakariak* bertsoak eta generoa buztartzen dituan umeentzako ikuskizunagaz gozatzeko aukerea egongo da.

IGORRE

## Ezohiko bonu kanpaina Igorren

Herriko merkataritza bultzatzeko Igorreko Udalak eta AMEk Igorreko merkataritza alkarteak, urtero egiten ditu bonu kanpainak apirlean. Aurten, apirlean konfinamentua egon zan eta udan egin da ohiko kanpaina. Ha-ta guzti be, urrietan beste kanpaina bat ipini dabe martxan, COVID-19a dala-eta, hartutako neurrien ondorioak arintzeko.

### Erredakzioa

Urri lehenengoaren 15etik, urri bigarrenaren 15era egongo dira bonuak eskuragarri.

Bonuokaz %33 merkeago ateraten dira erosketak. "Kanpaina COVID-19a dala eta ezohiko kanpaina da, egoera honetan familiai bereziki ondo etorriko jakielako laguntza eta komertzioari be bai" azaldu deutso BEGITURI Illart Gumuzio Igorreko alkateak. Igorreko 51 establezimentutan erabili daitezke Bonodenda bonuak.

### Urrietako ezohiko kanpaina

Kanpaina honetan 1.750 bonu bananduko dira, baxotxa 15 eurokoa, 10 euro pagauta. Gehienez bonu bi pilatu daitezke erosketa baxotzeko. Sabadell Guipuzcoano bankuko Igorreko bulegoan erosi daitezke bonuak asteleheneretik barikura 08:30etik 11:00etara.



## IPUIN EROTIKO LEHIAKETEA

# Arratiako Kalenturak Ipuin Erotiko Lehiaketearen bigarren edizinoa Lemoan izango da aurten

Arratiako Kalenturak Ipuin Lehiaketearen bigarren edizinoa martxan da. Lanak zemendiaren 30era arte bialdu daitezke [begitu@topagunea.com](mailto:begitu@topagunea.com) helbidera. Hiru sari emongo dira, irabazleak 600 euro jasoko ditu, bigarrenak 400 eta Arratiako ipuinik onenak 250 euro. Sari banaketea erotismoa gaitzat daukan kultura ekitaldi batez batera egingo da Lemoako Kultur Etxean Gabonaldian.



## Alvaro Rabelli/Erredakzinoa

Arratiako Kalenturak Ipuin Erotiko Lehiaketea Basauri eta Dimako ipuin erotikoen lehiaketen oinorde eta segidea da. ZERTU Kultur Elkar- teak hartu eban bere gain 2019an, Arratiako udalak arkarlanean lehiaketea antolatzeke ardura. Igaz, Igorrekoagaz antolatu eban eta aurten, 2020an, Lemoako Udala- gaz batera antolatu dau. Izan be, ZERTU alkarlearen eta Arratiako udalen arteko alkarlanean oinarritu- ten da lehiaketea. Urtero baila- rako udal batek ZERTUguz batera antolatzeke konpromisoa hartzea gura dau ZERTUk, beti udalaren ahalmena kontuan hartuta. Holan, lehiaketea antolatzearen ardura herri herri pasetan da.

Lehenengo edizinoan, Ernesto Prat Urzainki nafarraren *Sokada baten hiru muturrak* lanak irabazi eban; bigarren saria, Durangoko Josu Unzueta Ajuriarentzat izan zan, *Ilargiaren abestia* lanagaitik eta Arratiako saria Bediako Karlos Aretxabaleta Ormaetxeak eroan eban *Ortizmugan larrua jo leike* lanagaz. Hamazazpi narrazio

lehiatu ziran, Araba, Bizkaia, Gipuzkoa eta Nafarroatik bialdu- takoak. Egileai jagokienean, 12 gizonak eta 5 andrak hartu eban parte; gazteenak 22 urte ebazan eta zaharrenak 72.

Igazko sari banaketako ekitaldia Zuriñe Yarritik aurkeztu eban. Oihan Vegak bakarrikzketea eta Ismael Pereirak ikuskizuna egin eban. Irabazleak, Illart Gumuzio Igorreko alkatea, Irene Bilbao ZERTU Kultur Elkarleko presidentea eta Beatriz Azpiri BEGITUKO kazeta- ria eta epaimahaikidearen eskue- tatik jaso ebezana sariak.

## Zergaitik ipuin erotikoa Arratian?

Kasualidadea izan ala ez, begi golpe baten konturatzen gara asko izan dirala ipuin erotikoen lehiaketetatik pasa izan diran arratiarrak edota oin diran Arratiako bizilagunak. Holan, Igor Estankona, Julen Gabiria, Alvaro Rabelli, Rafa Ugalde, Janire Lopez, Zefe Ziarrusta eta Maite Arrizabalaga lan erotikoen egileak doguz. Horreetako batzuk aspaldi pasau ziran Basauriko Euskarabi-

la alkarleak 1996. urtetik 2012ra arte antolatutako Ipuin Erotiko Lehiaketatik. Urte horreetan, hain zuzen be, Igor Estankona, Julen Gabiria, Alvaro Rabelli, Rafa Ugalde eta Janire Lopez ipuinak sariak jaso ebezana aitaturako lehiaketan. Gaur Txalaparta argita- letxeak eginiko hainbat bilduma- tan topau geinkez euren ipuinak, *Bero hezeak* (2001), *Basa guri- na* (2006) eta *Esku hori!!* (2012) bildumetan hain zuzen be. Rafa Ugalderen *Relax* (2007) bildu- mea be ezin dogu ahaztu. Beste batzuk, Zefe Ziarrusta eta Maite Arrizabalagaren lanak, oindino argitaratu bakoak, azken urteotan Diman antolatutako Dimako Ka- lenturak Lehiaketari jagokoz.

Nabarmenezkoa da Rafa Ugalde dimoztarrak ipuin lehiaketa bien artean egindako zubilana. Ipuin erotikoa idazle honeetako batzuen ibilbidean anekdotikoak izan daitezke arren, batzuen- tzat lehenengo lanak izan dira, horreekaz urten dabe euskal lite- raturearen plazara. Eta ez honeek bakarrik, ugari dira gaur ezagu- nak diran euskal idazle gazteak

horreetatik pasau izan diranak, lehiaketok euki daben arrakasta eta eraginaren seinale. Halanda be, bai Basauriko lehiaketeak, bai Dimakoak euren onenak emon ebezana. Gaur egun ez da Euskal Herri osoan genero hau kontuan hartzean dauan beste lehiaketarik, Arratiako Kalenturak da bakarra.

## ZERTU Kultur Elkarleak aha- legin bat egin dau ipuin ero- tiko lehiaketari eusteko

Belaunaldi bakoak bere sexua- lidadearen isla deskubriduteko joera eukiten dau. Izan be, lite- ratura erotikoa helburu estetikoak eukiteaz gain -literatura guztiak daukan lez- sexu irakaspena be emon gura izan dau. Jendartearen sexu portaera eta fantasien eraku- lea da. Areago, jendarteak sexua- gaz ze hartu-emon daukan behin

eta barriro erakusten deusku.

Literatura erotikoa literatura bera bezain zaharra da. Beti euki izan dogu sensualidadea, amo- dioa eta barruko sentimentu guz- tiak islatzeko beharrazana.

Gu seguru gagoz antolatu izan diran ipuin lehiaketa guztiak, generoaren garapena ez eze, irakurle eta idazle barriak be eka- rri dabezena gure euskal literatu- rara. Euskal literatureari ekarpen handia egin izan deusie. Gene- roaren bilakaerea be agerikoa da. Gaur erotismoaren agerpen hutsetik harago, nagusi da sexu- generoaren gaineko ikuspuntua emotea. Eta literatura erotikoa mugak gaindituz erotismoa bera bestelango lanetara be zabaldu da, nabarmen-nabarmen idaz- le andrazkoen literaturan ikusi daikegun lez.

## ARRATIAKO KALENTURAK IPUIN EROTIKO II. LEHIAKETEA

### Sariak

Hiru sari emongo dira:

- Lehena: 600 euro.
- Bigarrena: 400 euro.
- Arratiako onenaren saria: 250 euro.

### Lehiaketea norentzat

Arratia eta Euskal Herri osoko hamasei urtetik gorako jentearentzat.

### Epaimahaiaren osaketea

Epaimahaia osotuko daben kideak literatura arloko profesional edo adituak izango dira.

### Sari banaketea eta lan saridunen aurkezpen ekitaldia

Sari banaketea erotismoa gaitzat eukiko dauan kultura ekitaldi batez batera (musika emonaldia, antzerkia, bertsoak, ipuin- kontaketak...) egingo da Lemoako Kultur Etxean Gabonaldian. Ekitaldi hori alkarlanean prestatuko da Lemoako Udala- gaz.

### Lanen argitalpena

Lan saridunak ZERTU alkarlearen esku geratuko dira eta osorik zein zatika argitaratzeko aukerea eukiko dau. Argitalpenari jagokonez, zenbait urtetako lan saridunak batuko dira argitaratzeko moduko bilduma osotzearen. Bildumea ZERTUK berak, edo aukeran Euskal Herriko argitaletxe ezagun batez batera alkarlanean, argitara emongo dau.



## Lehiaketearen oinarriak

- 1- Lehiaketa honetan hamasei urtetik gorako edozein personak hartu leike parte.
- 2- Lan guztiak argitaratu bakoak eta euskeraz idatziak izan beharko dira.
- 3- Lanak ipuin erotikoak izan behar dira eta DIN A4 orrietan makinaz tarte bikotxean idatzita aurkeztu behar dira. Lanen luzeerea lau eta zortzi orrialde artekoa izan behar da.
- 4- Lanean ez da egilearen daturik ipiniko, izenburua bakarrik. Egilearen datuak (Izen-abizenak, adina, telefonoa, helbidea eta lanaren izenburua) gutunazal zarratu baten sartuko dira eta gutunazal horren azalean lanean ipini dan izenburu bera ipini behar da.
- 5- Lan orijinala, hiru kopia, eta egilearen datuak dituan gutunazala beste gutunazal handiago baten sartuta, honako helbide honetara bialdu behar da: Zertu Kultur Elkarte, Herriko Plaza 24, 48142 Artea (Bizkaia). Posta elektronikoz bialdu ezker, gehitu artxibo bi, bat lanerako, bestea datuetarako, eta bialdu helbide honetara: [begitu@topagunea.com](mailto:begitu@topagunea.com).
- 6- Hiru sari emongo dira: lehena 600 eurokoa, bigarrena 400 eurokoa eta Arratiako onenari, 250 eurokoa.
- 7- Lanak bialduteko azken eguna 2020ko zemendiaren 30a da.
- 8- Zertu alkarteak izentauko dau epaimahaia literatura munduko kideakaz.
- 9- Sari emotea irabazleak bertan dirala egingo da. Non eta noz izango dan aurrez iragarriko da.
- 10- Lan saridunak Zertu alkartearen esku lotuko dira eta osorik zein zatika argitaratzeko aukerea eukiko dau, beti egilea nor dan garbi adierazoz.
- 11- Zertu alkarteak oinarri honeei edozein aldaketa egiteko aukerea eukiko dau, beti publikoki adierazoz.



Ernesto Prat Urzainki "Little" igazko irabazlea.



# Inbiu eguna

EUSKERA eta kultura kalera!

## Irailak 19

**GOIZLAN**

**11:00ETAN** Umeentzako irakurketa saioa  
kultur etxeko plazan

**12:30EAN** Helduentzako olerki saioa  
kultur etxeko plazan

**ARRASTIAN**

**17:00ETAN** Urpekakariak emanaldia\*  
frontoian  
(Eurie bada kiroldegiko frontoian)

\* Bertsoa eta generoa uztartuko dauen ikuskizuna

**ERDU MASKARILLEAGAZI!**  
Ekimen guztiak babes, segurtasun eta higiene neurri guztiak jarraituten dauriez

Logotipoak: Euskera, IGORRE, UEMA, ame, eta besteak.

## MENDIA

## Areatza-Gorbeia-Areatza ordu bi eta laurdenetan egiten saiatuko da Jokin Zabala

## Erredakzinoa

Bizikletaz eta oinez egingo dau eta erronkeak hiru zati ditu. Lehenengoa, bizikletan Areatzatik Pagomakurreraino litzateke; bigarrena, Pagomakurretik Gorbeira eta Gorbeiatik barrero Pagomakurreira, oinez, eta azkenik, Pagomakurretik Areatzara bizikletan. Guztira 30 kilometro inguru dira eta Jokin Zabala ordu bi eta 15 minutuan egin gura dau. Urri bigarrenaren 2an edo 9an, eguraldiaren arabera, hartuko dau erronka.

Aspaldian eukan Bediako mendi lasterketariak hau egiteko gogo. "Dana apustu batetik dator, kuadrillan egin zan apustu baten

parte bat da eta urteak daroadaz nik ea zenbat denporan egingo neuken jakin guran" azaldu deutso Zabala BEGITURI. Eta "pasau dana, pasauta" aurten dala erronkeari helduteko momenturik aproposena iruditu jako. Izan be, konfinamentuak eta pandemiak zeozer irakatsi badeuskue, bizitzeari premiazkoa dala da, gauzak ezin dirala beste momentu baterako itxi. "Osabea hil egin zan minbi-ziak jota konfinamentu hasieran eta hil baino lehenago eskatu eustan, sendatu ezkerko lagunduteko Gorbeira igoten. Arrebeak be Dravet sindromea dauka eta ezin da Gorbeira igon. Errazoi horreek guztiakaitik eta eurakaitik, hartu

gura dot erronka".



## PELOTEA

## Bergarako Txapelketea jokatu dau Amaia Aldayk



## Erredakzinoa


Dimoztarrak Nora Mendizabal izango dau bikotekide. Talde buru diranez, zuzenean finalerdietan sartuko dira. Partidua hilaren 29an izango da eta aurkaria edozein izanda be, partido gogorra izango dala uste dau Aldayk. Finala urri bigarrenaren 13an jokatu da.

Kategoria bitan seina bikote

neurtuko dira; Promesa eta Nagusi mailatan, hain zuzen be. Partidu guztiak Bergarako frontoian jokatuko dira aforo mugatuagaz. Arratiako pelotariak txapela irabazteko asmoa adierazo deutso BEGITURI. "Txapela janzteko gogo badaukat bai, eta gu talde buru moduan gogozanez semifinalak jokatuko doguz zuzenean. Beraz, toketan jakuna toketan jakula partido gogorra izango da" dino Aldayk.

## PELOTEA

## Final laurdenetarako sailkatu da Ekhi Ziarrusta Donibane Garaziko trinkete txapelketan



## Erredakzinoa

Urri lehenengoaren 7an, Endaiarrak klubeko Ekhi Ziarrusta dimoztarrak eta Inhar Ugarte getxoztarrak 40-24 irabazi eutseen Mainhaguet eta X. Lambert-eri, Donibane Garaziko Garat pelotalekuan, 27. Ehirtarien Kopa, Denis Harriet Saria Txapelketako lehenengo partiduan. Hilaren 28an jokatuko dabe hurrengo partidua, final laurdenetan. Finala, urri bi-

garrenaren 26an izango da.

Sano ondo hasi dau dimoztarrak trinkete sasoia, aspaldion jokatutako partido guztiak irabazi ditu eta. Izan be, hilaren 3an, Ziarrusta eta Ducassouk 33-40 irabazi eben Hasparmen Monce eta Guichandut-en kontra. Aurrietik be, abuztuaren 24an, Inhar Ugartegaz batera, 40-24 irabazi eben Niang eta A. Lureen kontra, Garaziko astelehenetako talentu barrien jaialdian.

## Etxeko Janaria Zure Etxean

Jandoniz Egoitzaren Zerbitzu Berria



**Betiko janarian zure extea**

Etxera eramateko janariaren zerbitzuak dieta orekatu eta osasuntsua eramaten laguntzen die gure nagusiei, etxean bertan. Karta-zerbitzua da; bazkaria, afaria edo biak eska daitezke astean nahi duzun beste egunetan, inolako konpromezurik gabe.

**Neurrira egindako dietak**

Askotariko menuak ditugu, testura ezberdinekin eta zure beharrianetara egokitutako dietak.

**Banatu baino askoz gehiago**

Banatzailak astean hiru aldiz bisita egiten dizunean iraungitze datak begiratuko ditu. Termoseilatatu bidez ibitako ontzietan banatzen da janaria, kalitate osoa bermatuz.

SARRERA  
PLATER NAGUSIA  
OSAGARRIA  
POSTREA  
OGIA

**8,95€**  
BEZ-a  
barne

**1 BANAKETA**  
Eskaria aurreikusitako ordutegian helduko da



**2 BANATZAILE JATORRA**  
Banatzaileak aurretik utzitako janaria berraztertu eta eskari berria utziko dizu



**3 INFORMAZIOA**  
Ontziak nutrizio informazioarekin eta iraungitze datarekin etiketatuta daude



**4 KONTSERBAZIOA**  
Ontziak hozkailuan gorde behar dira kontsumo unera arte



**5 PRESTAKETA**  
Plastikoa zulatuta eta berotutuan 3 minutuz mikrohuin labean



**3 MINUTUAN PREST**



**GOGORATU!!! Behin ontzia irekita, 24 orduko epean kontsumitu**



JANDONIZ NAGUSIENTZAKO ETXEA  
JANDONIZ, 2 KALEA  
48390 BEDIA

**946313130**

INFO@RESIDENCIAPARAMAYORES.JANDONIZ.ES

## FUTBOLA

# Arratia Futbol Taldea, eskualde txikian klub handia

**Pedro Jose Ormazabal Arratia Futbol Taldeko Zuzendaritza Batzordean dago. Klubak, 24 talde ditu eta bertan 5 urtetik hasita eta nagusietaraino 400 bat jokalaria dagoz. Gainera 42 entrenatzaile, 7 koordinatzaile, euretako 6 entrenatzaile be badira, fisioterapeuta bat eta psikologo bat ditu. Nagusien 4 taldek ligak jokatzen ditue. Espainako Lehen Nazionalan jokatzen dau nesken lehenengo taldeak eta Lurraldeko Lehentasunezkoan mutilenak.**

### Erredakzioa

2019-2020 denporaldia martian emon zan amaitutzat. Sei hilabeteke etenaldiaren ostean, entrenamentuak eta eskolai ekiteko dana daukie prest Arratia Futbol Taldeko Zuzendaritza Batzordekoak. Nagusiak hasi dira entrenamentuetan, urri bigarrenean lehiatzen hasiko diran esperantzeagaz. Eskola Kirola programakoak barriz, ez dira hasiko momentuz, Bizkaiko Foru Aldundiak ez hasteko agindua emon daualako.

### Noztik zagoz Arratia Futbol Taldean?

Ni klubean betidanik nago. Lehenengotik jokalaria izan nintzan, gero entrenatzailea 6 bat urtez eta oin Zuzendaritza Batzordean bada-roadaz beste sei edo zazpi urte.

Presidentea Asier Etxezarraga "Txata" da. Gero Zuzendaritza Batzordea dago, ekonomia, Federazioak hartu-emonak eta abar, kudeatutako. Koordinatzaileak, entrenatzaileak... Talde bakotzak entrenatzaile bi daukaz eta gero atezainen entrenatzailea dago. Eskolea be badaukagu 5-8 urteko umeentzat. Hor neskek eta mutilak alkarregaz dagoz.

### Asko kostau da edade guztietan nesken talderen bat sortzea, baina klubak lortu dau edade desbardinatiko 5 talde egitea eta Nagusietan talde bi izatea.

Bai. Mutil talde askoz gehiago dagoz, 19. Nesken taldeetarako barriz, urtero ibiltzen gara jokalaria bila. Aurtan ez daukagu Haur kategoriako talderik baina bai Kimu kategoriakoak (alebinak). Beti gabiz holan. Nesken futbola eta mutilena guztiz desbardina da: mutilari gustetan bajako joango da, baina nesken kasuan askotan gertatzen da aita edo ama konforme ez egotea, eta orduan ez da hain erraza. Egia da lehen baino askoz neska gehiago dagozala futbolean, baina ha-ta guzti be nik gurako neuke gehiago izatea. Nagusietan taldea daukagu Zornotzatik be badatozelako, Bilbotik baten bat be bai... Eta hori, Esta-

du mailan jokatuta! Nesken A taldeak Lehen Nazionalan jokatzen dau eta Espainiako Federazioagaz hartu-emonetan gagoz.

Gure helburua inork ez ixtea da, eta modu batean zein bestean jokatu gura daben jokalaria guztiak jokatuten jarraitutea. Ez badago talderik, mutlakaz entrenau edo beste edadeko neska talderen baten sartzean saiatzen gara. Urte batzuetan ez genduan aukerarik euki eta laupabost jokalaria Zornotzara bialdu genduzan. Han, urtebete egin eta gero bueltatu ziran. Beste behin, Zornotzak ezin izan eban taldea sortu eta Zornotzako batzuk Arratia etorri ziran. Beti saiatzen gara futbolean jarraitu dagien modua topatzen.

### Hasi da 2020-2021 denporaldia? Entrenetan hasi dira, ezta? Abuztuaren atzen astean hasi ziran Nagusiak entrenetan. Lau taldeak

Urri lehenengoaren 7an, barriz, Gazte kategoriakoak. Hurrengo astean umeak hastekoak ziran, eskolakoak, baina Aldundiatik etorri jakun agindu bat esanez ikusi arte eskolara itzulereak zelan funtzionetan dauan, ez hasteko. Egia da guk dana prest geunkala. Gure artean egon zan eztabaida bat eta gehienok ikusten genduan eskolak hasi badira, segurua zala futbolean jardutea. Eta umeakaz zelan egin pentsautu geunkan: sartu alde batetik, tribunan gune desbardinak egin ekipo bakotzak bere motxilak ixteko, bajatu beste aldetik, entrenau, hartu motxilea eta etxera. Horixe zan gure planteamentua. Eta gero, daukagu bidoi handi bat produktu batez eta han sartzean da erabilitako material guztia: baloiak, konoak, uztaiak... Erabili ostean, egunero, garbitu egiten da dana. Egia esan, arriskua gehiago ikusten



dogu kanpoan, hemen baino.

Baina hori izan da Aldundiaren agindua eta oingoz ez gara hasiko. **Zelan amaitu zan aurreko denporaldia, ze, bueno, ez zan amaitu.**

Hori da. Eta egia da Nagusiak eta Gazte kategoriakoak bigarren buelta polita egin ebela, igoera postuetara hurreratzen egozan, baina holan geratu zan. Igon dauan bakarria Kadete B taldea izan da. Eta inor ez da bajatu.

Nesken A taldea Espainako Lehen Nazionalen II. taldean dago eta B taldea Lurralde mailan. Bigarren talde honetan, nagusiak eta gazteak dagoz batera eta Bizkaia mailan jokatzen dabe. Mutilen A taldea Lurraldeko Lehentasunezko mailan dago eta B taldea Lurraldeko bigarrenen.

### COVIDak eta hartutako neurriak euki dabe eragina jokoan edo jokariengan?

Egia da talde batzuetan, holan hilabeteak paseteak entrenau eta konpetidu barik eragina izan ahal dauala eta ondorioz, batzuek etorteari itxi ahal deusiela. Gure kasuan, egia da apenas inork ez dauala itxi.

### Zelan ikusten dozu 2020-2021 denporaldia?

Nagusien konpetizinoa arraroa izango da. Beste modu baten dago planteautu. Pentsetan dot dirala, multzo bi eta bakotxean hamar talde. Lehenengo partidua euren artean izango dira eta segun zelan geratu sailkapenean, bigarren fasea igoteko, maila horretan geratzeko ala bajatutako jokatuko dabe. Orduan, sano inportantea da lehenengo fasean ondo geratzea.

Gazte eta Kadete kategorietan, mailaz igoteko asmoa daukagu.

### Futbola kirola baino gehiago da batzuentzat. Holan da Arratia Futbol Taldean?

Gu bardintasuna bultzatzen saiatzen gara beti. Arratiak Nagusietan neska talde bi daukaz eta batak Espainiako mailan jokatzen dau. Guk daukaguna ez dauka ez Zornotzak, ez Galdakoak... Arratian irla bat gara.


Oin dala urte batzuk hasi ginan entrenamentuetan, mutilai emoten jakien tratametu bardina emoten. Oindino ez gagoz maila bardinean, baina A taldeak entrenatzaile fisikoa euki dau aurtan, materiala... Eta hori jokoan igartzen da.

Integrazinoan be lagunduten dau Arratia futbol klubak. Hainbat ume daukaguz Maroko, Sahara, Hego Amerika, Pakistan... leku askotatik etorritakoak eta klubak umeai gustetan jakien gauza bat egiteko aukerea emoten deutse.

Zelaia txikia da, txiki geratu jaku. Oin dala 15 urte inoz ez genduan pentsauko 24 talde eukiko genduzanik; nesken hainbeste ekipo eukitea be pentsaezina zan. Entrenamentuak arrastiko 15:00etan hasten dira eta azkenengo taldeak 22:00etan amaituten dabe entrenetan. Dimensino handia hartu dau klubak.

## PELOTEA

# Oier Etxebarriak irabazi egin eban Igorreko frontoian



Oier Etxebarria Igorren.

### Erredakzioa

Urri lehenengoaren 12an Igorren jokatutako partidua ezin izan zan amaitu, Ibai Zabala lesionau egin zalako. Momentu haretan markagailuan aurrean joiazan Elordi eta Oier Etxebarria, pelotari igorrezarra 13-12, Bakaikoa eta Ibai Zabalen kontra, eta amaitutzat emon behar izan zan partidua, Elordi eta Etxebarriaren garaipenagaz.

Aurreko partidua be irabazi eban Oier Etxebarriak. Lezaman jokatu eban hilaren 5ean, Dario-gaz batera, Bakaikoa eta Larunberen kontra (22-10).

### Elezkanok galdu

Hilaren 5ean, Lezaman, jaialdiko beste partidua Danel Elezkanok jokatu eban, baina emaitza ez zan izan Dimakoaren aldekoa. Izan be, Elezkanok eta Aretxabalatak galdu egin eben Olaizola II. eta Zabaletaren kontrako partidua (22-13).

Gugaz harremanetan ipinteko  
94 631 73 14 eta 649 979 112  
Publizidadea: 649 979 115

begitu

begitu@topagunea.com  
www.begitu.org

## KULTUREA

## Kulturarako bonuak atera ditu Bizkaiko Foru Aldundiak

Bizkaia Aurrera Kultura Bonu (BAKB) izenpean, Bizkaian kultura konsumoa bultzatzeko asmoz, bonuak kaleratu ditu BFAk. Bi bonu mota dira, 15 eta 25 euroan salgai ipini diranak eta 40 euroko balioagaitik trukatu dira. Bonuak 2021eko maiatzaren 31ra arte erabili ahal izango dira.

Bonuetarako 500.000 euro ipini ditu BFAk. Ekimenak CECOBi eta Kutxabanken laguntza dauka. Bi motatako bonuak dira. A motakoak, 25 euroko prezioak, edozein motatako kultura produktuak erosi ahal dira: liburuak, musikea, filmak, dokumentalak, jokoak, bideo-jokoak eta museo, zinema, antzerkia, jantza eta kontzertuetarako sarrerak. Mota honetako 17.000 bonu ipini dira salgai. B motakoak barriz, 15 euroko prezioan erosi eta euskerazko kultur produktuak erosi daitezke; baita Bizkaiko tokiko hedabideetarako harpidetzak be, BEGITUrako harpidetzea, berbarako. Holango 9.800 bonu ipini dira salgai.

## Erredakzioa

Bonuak Kutxabankeko webgunearen bidez erosi daitezke. Persona bakotzak kategoria bakotzeko 4 bonu erosi ahal dauz gehienez. Beraz aukera guztiak aprobetxatzen dauzanak, 160 euro pagauta, 320 euro izango ditu kulturaren gastetako programari atxikitutako establezimenduetan.

## Begitu-lagun 15 euroan

Bonu honek Begitu-lagun izateko aukera parebakoa eskaintzen dabe. Bonuak, Begitu-lagun barriak 15 euro pagauko ditu, eta BEGITUk 40 euro jasoko dauz. Opari moduan, telazko boltsa bat, besoko argi islatzailea eta zortzi liburu jasoko ditu Begitu-lagun barriak eta Garena jatetxean lagun birezako degustazio me-

nuaren zozketan sartuko da.

Liburuok Angel Larrea eta Juan Rekalderen *Arratia Inguruko Hiztegia* eta *Berbategitxo*, Alvaro Rabelliren *Ustezko fikzioak* eta *Saguzarren profhezia*, Peru Tximaluze alemaniar ipuin klasikoaren euskerazko bersinoa, Arratia Musika Eskolako 25 urteurreneko monografia eta Iker Yurrebasoren *Haizea aurpegi* dira. Nerea Zuloaga eta Iratxe Andikotxearen *Kontaidazu! Kontaidazu!* ipuin eta abestien liburu-CDa be eroango dabe Begitu-lagun barriak.

BEGITU hobetuteko baliabide ekonomikoak behar dirala eta 2020ean, 50 Begitu-lagun barri egiteko kanpaina dago martxan.

## Programan parte hartzeako

Programan parte hartu gura da-

ben establezimendu edo erakundeak edozein momentutan atxiki ahal jakoz BAKBri, Kutxabanke bere webgunean horretarako daukan izen-emote orria beteta. Bonuak diruz trukatzeko, Bizkaiko Foru Aldundiko Euskara, Kultura eta Kirol Sailera bialdu beharko dauz, salmentearen ordainagiriaren kopiagaz batera. Trukea astean behin egin ahal izango da bagilaren 30era arte.

## Aurkezpen ekitaldia

Urri lehenengoaren 4an izan zan BAKB programearen aurkezpen ekitaldia. Lorea Bilbao Euskara, Kultura eta Kirol diputadua, Pedro Campo CECOBiiko presidentea eta Xabier Solaetxe Kutxabankeko Bizkaiko sareko zuzendaria egon ziran, hainbat kultur disziplinatako artistakaz batera.

## LITERATUREA

## Ipuin saioa eta literatura tailerra antolatu ditu hileon Dimako Andraizeak



## Erredakzioa

Udazken moreari hasikerea emoten deusie urri lehenengoan programa dagozan ekitaldi bik. Biak literatureagaz lotutakoak.

Urri lehenengoaren 19an, Beatriz Egizabalen *Ni ta punto* izeneko helduentzako ipuin saioa izango da. Ezaguna da Beatriz Egizabal ipuin kontalari feminista gurean. Izan be, 2017tik aurrera Ane Labaka bertsolariaz batera *Erradikalak ginen* eta *Erradikalak gara* emonaldiak egin ditu eskualdeko hainbat herritan eta parte hartu dau beste ekitaldi batzuetan umorezko aurkezpenak egiten.

## Irakurketa feminista tailerra

Hilaren 23rako, eguaztena, euskal andra idazleen irakurketa feminista tailerra antolatu dau Andraizeak, Kattalin Miner idazlearen eskutik. Minerrek *Nola heldu naiz ni honaino* eleberria eta *Moio: gordetzea ezinezkoa zen saiakerea* ditu kalean, baina tailerrean landuko dan lana ez da berak idatzi-

takoa, Eider Rodriguezen *Bihotz handiegia* baino.

Tailerraren helburua, euskal andra idazleak ezagutzeaz gain, gaur egungo gaiak ikuspegi feminista bategaz landutea da. Landuko diran gaiak, andren zaintza lanak, familia, andrak eta esfera publikoa, andren sexualitatea, amatasuna, eta eraso sexistak eta sexualak izango dira. Dimako liburutegian izango da, 18:30ean. Izena, hilaren 21a baino lehenago emon behar da [andraizea@gmail.com](mailto:andraizea@gmail.com) helbidean.

Eider Rodriguez idazle saritua eta ezaguna da, batez be bere ipuingintzatik, baina genero guztiak landu ditu. *Bihotz handiegia* (2017, Susa) narrazio liburuak Euskadi Saria jaso eban 2018an. Idazlearen beste lan batzuk, *Eta handik gutxira gaur* (2004, Susa), *Haragia* (2007, Susa), *Nikoleta eta gaua* (2008, Elkar), *Katu jendea* (2010, Elkar) eta *Itsasoa da bide bakarra: Joseba Sarrionandiaren lanetako itsas irudien irakurketa proposamen bat* (2014, Utriusque Vasconiae) dira, besteak beste.



Graduazinoak  
Ikusmen terapia  
Ikusmen gaitua  
Begiko tentsinoak  
Lentillen adaptazinoak  
Kiroletarako betaurrekoak

Sabinu Arana 3, 48140 IGORRE (Bizkaia)  
☎ 94 657 70 03 • [olaetxeoptik@hotmail.es](mailto:olaetxeoptik@hotmail.es)

★ BEER & EDARIAK  
Guillermo 659 48 28 39

Fernando 699 29 67 17  
Eduardo 647 72 96 24

Arkaitz 677 46 40 91  
Galder 666 58 20 06

Pozueta poligonoa, 10 IEMOA • [beereditoak@gmail.com](mailto:beereditoak@gmail.com)

## BERTSOLARITZEA

# Bizkaiko Bertsolari Txapelketarako sailkapen fasea hilaren 16an hasiko da

Sailkapen fasea maiatzan jokatzekoa zan, baina aurtengo egoera berezia dala eta, urri lehenengoan jokatuko da.

### Erredakzinoa

Bertan parte hartzeako 60 bertsolarik emon dabe izena. Tartean, Igorreko bik: Iñaki Iturriotz Zuluagak eta Illart Gumuzio Larrazabalek.

Sailkapen fase honetan, hamar saio egongo dira sei bertsolarikoak, bost egunetan; izan be, egun bakotxean saio bi egongo dira leku desbardinetan. Puntuazinoz sailkatuko dira bertsolariak Bizkaiko Bertsolari Txapelketara.

Iñaki Iturriotz hilaren 18an izango da Markina-Xemeingo Esperantza Aretuan, 18:30ean. Aurkari izango ditu Beñat Bilbao Landa, Ibai Amilategi Ormaetxebarria, Irune Basagoiti Agirre, Mikel Galarza Idirin eta Xabier Enbeita

Ibarra. Illart Gumuzioren txandea hilaren 24an izango da. Zallako La Capilla aretoan, Garazi Navarro Ugarteburu, Gorra Pagonabarra-ga Agorria, Igor Galarza Intxausti, Javier Martinez Gutierrez eta Koldo Muñiz Aldamizetxebarria izan-



go ditu aurrez aurre.

Saioen antolakuntzan jente askok hartzean dau parte, aurretiaz lan handia egin behar da eta. Arantzazuko Igor Menika Bengoetxea, talde antolatzaile eta gai-emoile taldeko partaide da. Hilaren 17an Getxon eta 24an Zallan eroango ditu aurrera gai-emoile beharrak.

**Bizkaiko Bertsolari Txapelketea** Bizkaiko Txapelketea, printzipioz, urri bigarrenetan hasiko da. Sei kanporaketa, hiru finalurreko eta finala izango ditu. Kanporaketara, sailkapen fasean sailkatutakoak eta 2016an finalistak eta 2018an finalurrekoetan kantau eben bertsolariak sartuko dira. 36 lagunek parte hartuko dabe fase horretan. Finalurrekoetan 2018an finalista izandakoak sartuko dira zuzenean. Hiru finalurreko izango dira eta 6 bertsolari egongo dira saio bakotxean. Finala 8 bertsolarik jokatuko dabe.

## EUSKEREAA

# Euskaraldia prestatzen

### Erredakzinoa

2018an egin zan moduan, belarriprestak eta ahobiziak euren egunerokoan euskereak indarra hartzeako ariketea egingo dabe aurtan be. Baina, aurtan norbanakoez gainera taldeak be hartuko dabe parte Euskaraldian, eta entidadeak be neurriak hartuko ditue hizkuntza praktika barriak bultzatzeko. Entidadeen izena emoteko epea hilaren 27ra arte da eta norbanakoena 24an zabalduko da. Zemendiaren 20tik abenduaren 4ra bitartean, izango da Euskaraldia.

Hizkuntza ohiturak aldatuteko, entidadeak euskeraz berba egiteko gai diran hizkuntz taldeak identifikauko dabez lehenengotik, ariguneak. Ariguneak mota bikoak izan daitezke: barne ariguneak eta kanpo ariguneak. Barne ariguneak entidadearen barruko funtzionamentuko taldeak dira. Kide guztiak euskerea ulertu behar dabe eta gitxienez taldekoez %80 ahobizi edo belarriprest moduan taldean parte hartzeako prest egon beharko da. Kanpo ariguneak barriz, entidadea eta herritarren arteko hartu-emon espazioak dira. Horreetan, beti egongo da ahobizi edo belarripresten bat herritarraz euskeraz egiteko.

Mota guztietako entidadeak hartuko dabe parte Euskaraldian: erakunde publikoak, gizarte eragileak, enpresak, kultur eta kirol taldeak eta abar. Arratian, be mota guztietako entidadeak emon dabe izena parte hartzeako; BATZ S. Koop. tartean.

BATZek, Euskera Plana guztiz inplementauta dauka eta Errota Fundazioko EusGara egitasmoan dago. "Euskaraldian emon dogu izena, gure xedeagaz bat etortzeaz ez ezik, hizkuntza ohitura barriak sortzeako talde erabakian oinarritutako ariketa dalako" dinoe BATZetik.

### Ahobizi eta belarriprest

Hilaren 24tik aurrera norbanakoak be emon ahal izango dabe izena, ahobizi edo belarriprest moduan ariketan parte hartzeako. Ahobiziak euskerea ulertzen daben guztiakaz euskeraz egingo dabe Euskaraldian. Lehenengo berbea beti euskeraz egingo dabe eta besteak euskeraz ulertuten ez badau bakarrik pasauko dira erderara.

Belarriprestak barriz, euren euskera gaitasunaren arabera ebazten dabe euskeraz noz eta nogaz egin. Euskeraz dakienak eurai euskeraz egiteko eskatzen deutsee, belarriprest izanda.

## EUSKARALDIA 2.EDIZIOA



## IKASTAROAK

# Ikastaroak aterateko beharrea dabiz udalak

### Erredakzinoa

Udal gehienak 2020-2021ean be aurreko urteetako ikastaroak egiteko asmoa daukien arren, hartu beharreko osasun neurriak eta COVID-19aren bilakaerak berak, atzeratu egin dau eskaintzea. Dana dala, urri bigarrenetan, ikastaroak hasi daitezkan beharrea dabiz Arantzazun, Artean, Bedian, Lemoan, Igorren eta Zerberion. Zeanurin, COVID-19aren bilakaerak itxi ezker, zemendian

hasiko litzatekez jenteak eskutatuko ikastaroak.

### Lemoako kiroldegia

Lemoako kiroldegiko ikastarotan barriz, izen emotea zabalik dago hilaren 25era arte kiroldegian bertan. *Yoga, Pilates, Spinning, Aeromix* eta *GAP*-en emon daitezke izena. Taldeen gehieneko aforoa 9 edo 10 pertsonakoak izango dira. Ikastarook urri bigarrenaren 1ean hasi eta abenduaren 31n amaituko dira.

**Autokontsumo Fotovoltaikoa**

AURREKONTUA ESKATU

Eguzki panelak jarri eta aurreztu %50 zure faktura elektrikoan

Arratian jadanik egindako proiektuak bisitatzeko aukera

PROIEKTUAREN KUDEAKETA OSOA  
Memoria teknikoa, osagaien instalazioa eta legeztapena

944 567 368  
www.ekoleds.com  
Bedia | Bizkaia  
info@ekoleds.com

**ekoLEDs**  
INST. ELECTRICAS  
600 565 079

AGENDEA

**URRI LEHEN. 15**  
**ARANTZAZU**

17:00etatik 19:00etara, astelehenetik barikura Udal Liburutegia zabalik.

**ARRATIA**

Euskal Herriko 650 tontorretara igoera. Urri bigarrenaren 3rako Sarek antolatutako Izan Bidea ekimenean izen emotea zabalik <http://650tontor.sare.eus> helbidean

**BEDIA**

16:30etik 19:30era, hilaren 18ra arte, Udal ikastaroetan izena emoteko epea zabalik liburutegian. Ikastaroak: *Egurra lantzen, Yoga, Pilates, Zumba, Korru dantzak, Koroa, Umeentzako euskal dantzak, Soinketa hipopresioa, Ingelesa: mintza praktika, Euskera ikasteko ikastaroa, Eskulanak, Gimnasia erritmikoa, Mugiment programea: korrika eta luzapenak, Mantenu soinketa, Adimen emozionala II eta Masaje geriatrikoa.*

16:30etik 19:30era, hilaren 18ra arte Umeen Irakurle Klubean izen emotea liburutegian. 8 eta 12 urte bitartekoentzat, Julen Gabiriaren eskutik.

16:30etik 19:30era, hilaren 18ra arte, urri bigarrenaren 3an egitekoa dan Vivanco Bodegara urtekerarako izen emotea liburutegian.

16:30etik 19:30era, hilaren 18ra arte, urri bigarrenaren 24an egitekoa dan Getariara urtekerarako izen emotea (Cristobal Balenciaga museora eta Elkano txakolindegira).

16:30etik 19:30era, hilaren 22ra arte, Euskaraldian parte hartzeako izen emotea liburutegian. Bediako entidadeak.

\**(Oh.: COVID-19aren larrialdiaren inguruko gomendioak hartuko dira kontuan guztietan).*

**IGORRE**

Igorreko Udal Liburutegia zabalik liburuak hartu ahal izateko, aurretik txandea eskatuta 94 685 25 30 telefonora deituta edo [liburu.igorre@gmail.com](mailto:liburu.igorre@gmail.com) helbide elektronikora idatzita. Astelehen, martitzen, eguen eta barikuetan 10:00etatik 14:00etara, eguaztenetan 16:00etatik 20:00etara.

**LEMOA**

Hilaren 22ra arte, Udaleko Euskera Zerbitzuak antolatutako euskera klaseetarako izen emotea udaletxean. Sei ordu astean, urri lehenengotik bagilera.

09:30ean, eguazten guztietan, 3. Adinekoentzako ibilaldi gidatuak. Gudarien parkean.

Hilaren 25era arte, izena emon daiteke kiroldegiko ikastaroetan: *Yoga, Pilates, Spinning, Aeromix* eta *GAP*. Kiroldegian (94 631 42 97).

16:45etik 18:45era, ludotekea zabalik. Zalantzarik izan ezkeru idatzi [lemaokoludoteka@gmail.com](mailto:lemaokoludoteka@gmail.com) helbide elektronikora.

**ZEBERIO**

Urri bigarrenaren 31ra arte, herriko ingurua eta ekintzak gaitzat daukiezan argazkiak bialdu daitezke [udala.zeberio@bizkaia.org](mailto:udala.zeberio@bizkaia.org) helbidera 2021eko egutegia osotuteko Argazki Lehiaketan parte hartzeako. Argazkiak horizontalak izan behar

dira baina ez panoramikoak.

**URRI LEHEN. 17**  
**DIMA**

18:00etan, *Ertzaintza eta dimoztarren harremanak* berbaldia eskualdeko ertzainburuaren eskutik eskolako kamanan.

**URRI LEHEN. 19**  
**AREATZA**

Gorbeia Parke Naturalak antolatuta, mendi ibilbidea Ubidetik Oketara iluntzean. Izena emon [gorbeia.park.naturala@bizkaia.eus](mailto:gorbeia.park.naturala@bizkaia.eus) helbide elektronikoa edo 94 673 92 79 telefonoan.

**ARTEA**

10:00etatik 15:00etara, Arteako Herri Azoka. Frontoian.

**DIMA**

19:00etan, *Ni ta punto!* helduentzako ipuin saioa Beatriz Elgezabalen eskutik eskolako kamanan.

**IGORRE**

Inbiu Eguna. 11:00etan, umeentzako irakurketa saioa; 12:30ean, helduentzako olerki saioa Kultur Etxeko plazan; 17:00etan, umeentzako bertso-antzerkia *Urpekakariak* udaletxe ondoko frontoian (euria bada, kiroldegiko frontoian).

**URRI LEHEN. 21**  
**DIMA**

Euskal Emakume Idazleen Irakurketa Feminista Tailerrean izena emoteko azken eguna.

**ZEBERIO**

Hilaren 25era arte, udaletxe aurrean egongo da Bizkaiko Garbigune Sareko Garbikerreko kamioia, Zeberio Udalaren ekimenez.

**URRI LEHEN. 22**  
**LEMOA**

18:30ean, herri batzarra. Euskaraldia, Udaletxean.

**URRI LEHEN. 23**  
**DIMA**

18:30ean, Euskal Emakume Idazleen Irakurketa Feminista Tailerra Kattalin Minerrek gidatuta. Irakurrita eroan beharreko liburua, Eider Rodriguez-en *Bihotz handiegia*. Dimako liburutegian.

**URRI LEHEN. 26**  
**ZEANURI**

11:00etan, Gorbeia Turismo Jomugak antolatuta, Zeanuriko Undurruga urtegiari izulia.

**URRI LEHEN. 27**  
**ARRATIA**

Entidadeak Euskaraldian izena emoteko atzen eguna.

**URRI LEHEN. 30**  
**BEDIA**

17:30ean, Liburu-maleta ibiltaria Onditz Mendizabalen eskutik liburutegian.

**begitu**  
ez da debalde

Emon gitxi, eta jaso asko. Badira, zure diru apur bat merezidu daben berbak. Izan zeu be **Begitu-laguna!**

[www.begitu.org](http://www.begitu.org)

**erosketak %33 merkeago**

**Igorre gure dendakaz**

**15€ KO BALIOA DU PREZIOA: 10€**

**KAMPAINAREN EZAGARRIAK:**

1. 175€ bono banatuko dira, bakoitza 15 eurokoa. Bono bakoitza 10 euroren truke eskuratu da, baina jabearentzat 15€-ko balioa izango du. Kampaniaren baitan Igorreko salbitokian besterik ezin dira erabili. 10 urteko gorako pertsonak bakarrik erosi ahal izango dituzte, erosteko orduan NAN agria aurkeztu behar duzue. Itze izango dira lau bono bakoitza gutxiago erosi NAN zentuzko.
2. Bonoa behin besterik ezin da erabili kampaniaren baitan salbitokian. Erosten zentuzko bonoaren balioa bono bakoitza badi, ez da atzerakorik itzuli eko dirutan. Bonoak ezin dira diruaren truke aldatu eta bono horren zentuzkoak ez da erosi ere itzuliko. Gehenez ere 2 bono pila gutxiago erosteko bakoitza (gehenez, 2 bono erabiliko dira erosteko-txartel bakoitzeko).
3. Bonoak ezin dira erosi dirutan emandako diruaren truke aldatu eta horren zentuzkoak ez denaz inola ere itzuliko, salbitokian besterik ezin dira erosi, erostetarekin bulio osoa duen barikua eman behar da.
4. Bonoen salmenta Igorren erabiltzuta dagoen jendearentzat hilaren 15ean hasiko da eta besteentzat irailaren 22ra eta irailaren 15era arte edo izanik amaitu arte erosi ahal izango dituzte kontsumitzaileek. Sabadell Guipuzcoanoko Igorreko bulegoan, astelehenetik ostiralera 8:30etatik 11:00ak arte.
5. Bonoak erosten dituzten pertsonak irailaren 15etik azaroaren 15era bitartean ezabili ahal izango dituzte, biak barne. Epe hori igarrita, ezin izango dira onartutako erabili. Igorreko Udalak kampanian parte hartzeo animatu nahi izan du, baina bakoitza horretarako proposamenek merkatariak eta ostalaritza sektoreak dinamizatzeko eta herriaren inbida sendotzeko laguntza dutela.

**ANTOLATZAIKAK**

**LAGUNTZAIKAK**

IGORREKO UDALA | ame | Sabadell/Guipuzcoano | S

- Alvaro Kintak
- Aldeberriaga Aretakak
- Arribak
- Arretak informetika
- Aria
- Astak Kultur Elkarte
- Ber Erekak
- Bizargiak
- Centro de belleza "Darya"
- Decorative y pintura Igorta
- Die Autostarbit
- Donar Kebab La Bodegilla
- Donibaita Taberna
- Ekar Kintak
- Eraso
- Expert Arretak
- Eskola Taberna
- Frosteria Beatri
- Frosteria Pina
- Garaje Felipe
- Garden Igorta
- Deloski
- Haina Natura Estetika Zentroa
- Kanbonguesaria Nangari
- Reparakia
- Igorreko Satekua
- Intyle
- Intre sivek
- Izanika Aitor eskultza
- Joyeria Belostegi
- Jubilatuon Taberna
- Kastabrika arretak
- Kiki-Kiki
- Kina Bepuzko
- Kita Igorta
- Kukuma Taberna
- Landimoko
- Larrea
- Mamak
- Morka Labeta
- Mundua Igorta atzeriak
- Mugari Interakzioa
- Ostetia sofia
- De Egin
- Dona
- Paulita
- Rokafila herategia
- Sain
- Toka
- Tropano jabetza
- Zapil Naberria

# KOMIKIA

Kailo Ren



## IRAGARKI LABURRAK

### DANERIK ETXEA ALOKAIRUAN

Diman pisua alokatzen dot. Gela bi, komun bi, salea eta suete ederragaz. Garajea etxe azpian, argitsua eta orientazio onean. Hilean 700 euroren truke. Kontaktua zenbakia: 666 125 725.

### PARTZELEA ESKAINTZEN DOT

Lemoako Ajuriagerra kalean, kotxea aparketako partzelea eskaintzen dot alokairuan. Interesdunak deitu 627 087 495 telefonora.

### KLASEAK EMOTEN DIRA

Fisika, Kimika, Matematika eta Biologiako klase partikularak emoten dira Igorren. Interesdunak deitu 610 682 961 telefonora.

### KLASEAK EMOTEN DIRA

Matematika, Euskera eta Gaztelania klase partikularak emoten dira online zein modu presentzian, Lehen Hezkuntza osoa eta DBH 1. mailako ikasleentzako. Interesdunak deitu 646 447 988 telefonora.

### ELIKADUREA ETA NUTRIZINOAN ADITUA

Elikatze ohitura konziente eta osasuntsuak jarraitzen lagunduko deusut; horretarako, plan personalizatu egingo deusut heziketa nutrizional, *coaching* edota *mindful eating*-a oinarritat hartuz. Hartu-emonetarako: [narao\\_esparza@hotmail.com](mailto:narao_esparza@hotmail.com) (lehen hitzordua doban).

### KLASEAK EMOTEN DIRA

Institutuko ikasleentzako matematika, fisika, kimika, marrazketa tekniko, teknologia... klaseak eskaintzen dira. Informazio gehiagorako deitu 608 381 984 telefonora.

Zezer saldu, erosi, alokatu, trukea egin, behar edo behargin bila bazagoz, bidali asko jota 25 berbako mezu bat [begitu@topagunea.com](mailto:begitu@topagunea.com) helbidera. Mezuak doban dira.

## Begitu-lagunen txokoa

Zenbaki honetako saridunak:

**1** Dimako Baltzola jatetxeak emondako bazkaria lagun birentzako.

Garazi Santos (Areatza)



**begitu**

Zerturen argitalpenak jasoko dozuz, zozketetan sartuko zara. BEGITUK 18 urte eta ehundaka lagun.

94 631 73 14 | [www.begitu.org](http://www.begitu.org) | [begitu@topagunea.com](mailto:begitu@topagunea.com)

umean medu  
**sem**  
e-16  
Agirre Lehendakaria, 31 • 48140 IGORRE  
Tfnoa: 94 631 92 96 • [semedu@hotmail.com](mailto:semedu@hotmail.com)

**Kepa Intxausti**  
TAXI ZERRITZUA  
609421222  
IGORRE

**BIXER**  
TABERNA  
Beko kalea, 2 - Tel. 94 631 73 65 - VILLARDO

**begitu**

**NAIARA** Hertz Klinika  
Lehendakari Agirre, 19  
48140 Igore  
94 631 52 26

**Jose Luis Corbacho**  
**pintura lanak**  
Sabino Arana, 3, 3a • 94-673-70-87  
Igorre 48140 Bizkaia • 609-79-40-54

**KIRRU**  
ILEAPAINDEGIA  
ROSANA eta ROBER  
SABINO ARANA 38  
IGORRE  
Tlf. 94 631 92 00

**Orre**  
FOTOKOPIAK - PAPERDENDA  
L. Agirre, 2.  
48110 Igorre (Bizkaia) • Tfnoa: 94 673 64 35

**ZUZENBIDE**  
ASEGURUAK: AUTOAK ETXEBIZITZAK  
AHOLKULARITZA: LAN ZUZENBIDEA ZERGAK KONTABILITATEA  
DENDAK ISTRIPUAK BIZITZA...  
Tlf. 94 673 71 41 • 94 673 70 55 • 94 612 11 96 • Faxa 94 612 11 96  
Sabino Arana 3. behea • Igorre (Bizkaia)

**Pinturas Arantia**  
Javi Morato  
Tel. 628 443 992

**Igorren ARKITEKTOA**  
Aitzol Aurrekoetxea Pujana  
Lehendakari Agirre 23, behea  
[aitzol@coavn.org](mailto:aitzol@coavn.org) • 675 705 111

Guzuz hurremanetan gonetako 94 631 73 14 eta 649 979 112  
Publizitateak: 649 979 115  
**begitu**  
[begitu@topagunea.com](mailto:begitu@topagunea.com) • [www.begitu.org](http://www.begitu.org)

# begitu

18 urte

arratia  
ubide  
zeberio

## BAIETZ 50 LAGUN BARRI EGIN!

2020AN EGIN ZAITEZ BEGITU-LAGUN! BEGITU-LAGUN EGITEAK SARIA DAUKA!

Begitu aldizkariaren asmoa eten barik hobetzea da, beti be Arratia-Ubide-Zeberio inguruko euskerazko aldizkaria euki daigun. Baina horretarako baliabide ekonomikoak indartu behar doguz, Begitu bere buruaren jaube izan eta etorkizunari bermez eutsi ahal izateko. Horretarako **2020an egin zaitetz Begitu-lagun!** kanpaina abiatu gura dau Begitu aldizkaria argitaratzen dauan Zertu Kultur Elkarteak, eta helburua argia da:

Arratia-Ubide-Zeberioko hamabostekari euskalduna babesteko dozu?

Hori egiteagaitik **Garena** jate txean lagun birentzako degustazino menua zozketatuko dogu abenduan.



\*Gainera Begituren produktu honeek helduko jatzuz etxera doban.

Oindino Begitu-laguna ez bazara, eta Arratia-Ubide-Zeberioko hamabostekaria babestu gura badozu, bete egizu beheko formularioa eta bialdu honako helbidera:

**Zertu Kultur Elkarte** Herriko plaza 24. 48142 Artea.

Izen-abizenak: \_\_\_\_\_

Helbidea: \_\_\_\_\_

Telefonoa: \_\_\_\_\_ Helbide elektronikoa: \_\_\_\_\_

Kontu korrontearen zenbakia: ES \_\_\_\_\_

Aukeratu urteko kuotea:  35€  55€  75€  15€

Edo e-mailez, bialdu datuok: [begitu@topagunea.com](mailto:begitu@topagunea.com) helbidera.




Egin zaitetz Begitu-lagun 15 euroren truke **Bizkaia Aurrera Kultura Bonuagaz!**

**AEKn, IRAKASLE BATEK BIK BESTE BALIO DU.**

Irakasten daki eta ikas dezazun nahi du.



Zorion Urrazpintzen Argitzaileak, AEK-ko irakasleak.

## Arratiako AEK

MATRIKULA ZABALIK

- Maila guztiak, azterketa ofizialak: A1-A2-B1-B2-C1-C2
- Ordutegi zabalak.

Elexalde 10, Igorre  
94 631 56 57 / 607 632 916 · [arratia@aek.eus](mailto:arratia@aek.eus)

DIRULAGUNTZAK

Arratiako udal guztiek diruz lagunduta.

**EUSKARA - IKASTAROAK**

LEMOA  
946 31 44 06  
ZABAL@ALKIZABAL.NET
**ALKIZABAL**  
LEMOA - BASAURI  
www.alkizabal.net
BASAURI  
946 51 05 99  
BASAURI@ALKIZABAL.NET

MAKINEN ALOKAIRUA ETA SALMENTA



BANATZAILEA

JCB







